

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Diputatuen Kontseiluaren 841/2016 Erabakia, abenduaren 13koa, onartzen duena Gasteizko ondasun higiezinaren gaineko zergari lotutako lurzorua eta ezaugarri berezietako ondasun higiezinaren balioeztapan txostena, eta jakinaraztea handik sortutako katastro balioak bulegoan bertan

Azaroaren 9ko 604/2016 Foru Aginduaren bidez, behin-behinean onartu zen Gasteizko udalerriko ondasun higiezinaren gaineko zergari lotutako lurzorua eta ezaugarri berezietako ondasun higiezinaren (eraikinak) balioeztapan txostena.

Aipatutako foru aginduaren xedapen zatiko 2. artikuluan, Gasteizko Udalari haren berri emateko agindua eman zen. Agindu hori 2016ko azaroaren 10ean bete zen, eta aipatutako udalak hurrengo egunean jaso zuen jakinarazpena.

Uztailaren 19ko 42/1989 Foru Arauak, ondasun higiezinaren gaineko zerga arautzen duenak, 11. artikulua 4. paragrafoan udalari hamabost egun aitortzen dizkio egoki deritzona jakinaraz dezan, eta epe horretan udalak ez zuen alegaziorik aurkeztu.

Bestalde, uztailaren 19ko 42/1989 Foru Arauak, ondasun higiezinaren gaineko zerga arautzen duenak, xedatutakoarekin bat etorritik, katastroko balioak banan-banan jakinarazi behar zaizkio subjektu pasibo bakoitzari, edo subjektu pasiboa edo berak baimendutako pertsona horretarako jartzen diren bulego publikoetara bertaratu behar da, balioak indarrean jarri aurreko urtea amaitu baino lehen.

Arabako Foru Aldundiak postaz jakinaraziko dizkie subjektu pasiboari Gasteizko udalerriko ondasun higiezinaren gaineko zergari lotutako ezaugarri berezietako ondasun higiezinaren katastro balio berriak.

Hala ere, segurtasun juridiko handiagoaren mesedetan, komenigarri iritzi zaio bulego publikoen aurrera agertuz ere jakinarazteari, postaz jakinaraztea lortu ez den kasuetan subjektu pasiboak edo pertsona baimenduak aukera izan dezan horretarako jartzen diren bulego publikoetan katastro balio berriak jasotzeko.

Udal Zerga eta Katastro Zerbitzuak gai horri buruz egindako txostena aztertu da.

Horregatik, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak proposatuta eta Diputatuen Kontseiluak gaia gaur egindako bilkuran aztertu ondoren, hau

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Onartzea Gasteizko udalerriko ondasun higiezinaren gaineko zergari lotutako lurzorua eta ezaugarri berezietako ondasun higiezinaren (eraikinak) balioeztapan txostena.

Bigarrena. Erabaki hau ALHAOn argitaratuko da, eta Gasteizko Udalari dagokio haren berri ematea, ediktuak jarrita, halaxe xedatzen baitute uztailaren 19ko 42/1989 Foru Arauak, ondasun higiezinaren gaineko zerga arautzen duenak, 11. artikulua 6. paragrafoan, eta haren arautegi bidezko garapenak —Diputatuen Kontseiluaren abenduaren 22ko 1080/1992 Foru Dekretuak onarturikoak—, 15. artikuluan.

Hirugarrena. Balioeztapan txostena argitaratu ondoren, balioeztapan txosten honetatik sortuko diren ezaugarri berezietako ondasunen katastro balioak bertaratu jakinaraziko zaizkio subjektu pasiboari edo baimendutako pertsonari.

Horretarako, subjektu pasiboa edo baimendutako pertsona Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailaren bulegoetara etor daiteke (Samaniego kalea 14, Gasteiz), dagokion jakinarazpena jasotzera.

Aurrekoa gorabehera, postaz eta banan-banan jakinaraziko zaizkio subjektu pasibo bakoitzari balioak indarrean jarri aurreko urtea amaitu baino lehen, bat etorri Diputatuen Kontseiluaren abenduaren 15eko 1080/1992 Foru Dekretuak —uztailaren 19ko 42/1989 Foru Araua, ondasun higiezinaren gaineko zerga arautzen duena, arautegi bidez garatzen duenak— 17. artikuluan ezarritakoarekin.

Laugarrena. Aurreko idatz zatian aipatzen diren jakinarazpenak jasotzeko hamar eguneko epea egongo da, dagokion iragarkia ALHAOn argitaratzen den egunaren hurrengotik kontatzen hasita.

Bosgarrena. Jakinarazpenak jasotzeko hamar eguneko epea igaro eta subjektu pasiboak edo baimendutako pertsonak jaso ez baditu, jakinarazitzat joko dira ondorio guztietarako.

Seigarrena. Erabaki hau ALHAOn argitaratuko da. Era berean, eta laugarren idatz zatian ezarritakoarekin bat etorri, dagokion iragarkia ALHAOn argitaratuko da.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko abenduaren 13a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua

JOSÉ LUIS CIMIANO RUIZ

Ogasun zuzendaria

TERESA VIGURI MARTÍNEZ

AURKIBIDEA

MEMORIA

BALORAZIO IRIZPIDEAK

1. ONDASUN HIGIEZINEN GAINEKO ZERGAREN KARGAPEKO HIRI LURZORUAREN BALIOA ZEHAZTEA

1.1. SARRERA

1.2. LURZORUAREN BALIOARI BURUZKO OHARRAK

1.2.1. BALORAZIO ZONA FISKALEN BANAKETA

1.2.2. LURZORUAREN BALORAZIOA

1.2.2.1. BALORAZIO IRIZPIDE NAGUSIAK

1.2.2.2. GARATZEKE DAGOEN LURZORUA

1.2.2.3. LURZORUAREN BALIOAREN ZUZENKETA KOEFIZIENTEAK. APLIKAZIO EREMUA

1. Balio jasanaraziaren bidez baloratutako lurzorua

2. Unitate balioaren bidez baloratutako lurzorua

1.2.2.4. MERKATUAREN KOEFIZIENTEA K

1.2.2.5. MERKATU ERREFERENTZIA ME

1.3. LURZORUAREN KATASTRO BALIOAK LORTZEKO FORMULA

1.4. ERAIKUNTZEN BALIOARI BURUZKO OHARRAK

1.4.1. DEFINIZIOAK

1.4.2. ERAIKUNTZEN BALORAZIOA

1.4.2.1. OHAR OROKORRAK

1.4.2.2. ERAIKUNTZA MODULUAREN EDO METRO KOADROAREN EGUNGO KOSTUA (EOM)

1.4.2.3. ERAIKUNTZEN KALITATEA

1.4.2.4. ERAIKUNTZEN BALORAZIOAK

1.4.2.5. ERAIKUNTZEN BALIOAREN ZUZENKETA KOEFIZIENTEAK Z_{ci}

1.4.2.6. MERKATUAREN KOEFIZIENTEA K

1.4.2.7. MERKATU ERREFERENTZIA

1.5. ERAIKUNTZAREN KATASTRO BALIOAK LORTZEKO FORMULA

1.5. KATASTRO BALIO OSOARI BURUZKO OHARRAK

LURZORUAREN ETA ERAIKUNTZEN BALIOAREN ZUZENKETA KOEFIZIENTEAK

1.7. KATASTRO BALIOAK LORTZEKO FORMULA

1.8. ADMINISTRAZIOAK GEHIENENKO SALMENTA PREZIOA FINKATU DIEN ONDASUN HIGIEZINAK

I. ERANSKINA. ERAIKUNTZEN BALIOEN KOEFIZIENTEEN TAULA

II. ERANSKINA. KOEFIZIENTEEN TARTEAK ETA KALITATEEN AZALAK

III. ERANSKINA. ANTZINATASUN KOEFIZIENTEAK

IV. ERANSKINA. ZONA FISKALAK. BALIO JASANARAZIAK ETA UNITATE BALIOAK

V. ERANSKINA. DEFINIZIOAK

2. KARTOGRAFIA

MEMORIA

Lurzoruaren eta eraikinen balioeztapan txosten honen esparrua GASTEIZ udalerriko ezau-garri berezietako hiri ondasun higieziei dagokie.

Uztailaren 19ko 42/1989 Foru Arauak, ondasun higiezinaren gaineko zergarenak, honako hau xedatzen du 6. artikulua 2. idatz zatian: ondasun higiezinaren gaineko zergaren zerga oinarria zehazteko, ondasun higiezinaren katastro balioa hartuko da haien balioetatik, eta merkatuan daukaten balioaren arabera finkatuko da; katastro balioa ezin izango da merkatuko balioa baino handiagoa izan.

Era berean, aipatutako foru arau horren 12. artikulua 1. idatz zatiak adierazten duenaren arabera, katastro balioak Arabako Foru Aldundiak aldatuko ditu, ofizioz edo dagokion udalak eskatuta, hirigintza planeamenduak edo bestelako egoerak agerian uzten badute alde nabarmena dagoela balio horien eta udalerrian edo bertako zonaren batean dauden ondasun higiezinaren merkatuko balioaren artean.

Diputatuen Kontseiluaren irailaren 13ko 55/2011 Foru Dekretuak, ezaugarri berezietako ondasun higiezinaren katastro baloraziorako arauak onartu zituen. Dekretu horrek 2. artikuluan xedatzen du ezen lurzoruaren balioaren eta eraikuntzen balioaren batuketatik ateratakoa dela mota horretako ondasun higiezinaren katastro balioa.

Era berean, lege xedapen beraren 3. eta 4. artikuluetan arautzen denez, kasuan kasuko balioeztapan txostenetan finkatuta egongo dira mota horretako ondasun higiezin berezien lurzoria eta eraikuntzak balioesteko irizpideak.

Orobat, funtsezkoak diren berezitasunak ezartzeaz gain, aparteko balorazioa egin behar dela agintzen du, dagokion balioeztapan txostenak aurreikusitako balorazio metodoari jarraituz. Hala ere, ahal den guztietan, landa eta hiri ondasun higiezinak baloratzeko arau berberak aplikatuko direla xedatzen du.

Diputatuen Kontseiluaren urriaren 14ko 51/2014 Foru Dekretuaren bitartez, lurzoria eta eraikinak baloratzeko arau teknikoak eta haien balioen esparru taula onartu ziren; horiek arautu behar dituzte balioeztapan txostenen edukiak.

Balioeztapan txostenak M modulua deritzen lan tresna batean oinarrituz prestatuko dira. Aipatutako 51/2014 Foru Dekretuak M modulua onartu zuen, eta 952,00 €/m²-tan ezarri zen. Parametro horretatik abiatuta, lurzoruaren baliorako zenbait balio jasanaraziren modulu tipoak kalkulatu ziren, hain zuzen ere honako hauek: LBJOM1= 337,86 €/m² eta LBJOM2 = 207,92 €/m² eta eraikuntzaren baliorako modulu tipo bat: EOM = 595,00 €/m².

Horrela, bada, gorago aipatutako legezko xedapenak oinarri hartuta, honako modulu hauek ezartzen dira GASTEIZ udalerrirako:

LBJOM1- Lurzoruaren balio jasanaraziko oinarritzko modulua: 337,86 €/m² eraik.

EOM - Eraikuntzaren Oinarritzko Modulua: 595,00 €/m² eraik.

LURZORUAREN BALIOAK:

Azaldutako arrazoiketari jarraituz, balorazio espezifikoak, Gasteizko aireportuaren kasuan, higiezin merkatutik kanpoko datuetan oinarritu beharko da, hau da, beste prozedura batzuetatik lortutako datuetan, higiezin merkatu horretara heltzen ez diren ondasun higiezinak direlako. Aipatutako ondasun higiezinaren katastro balioa lortzeko abiapuntu diren datuak Arabako Foru Aldundiak berak aireportua handitzeko egindako desjabetzapenetatik datoz, eta Estatistikako Institutu Nazionalak argitaratutako estatistiken arabera eguneratuta daude, eta lotura dute ekipamendu balioarekin, garraio izaera daukalako aireporturako erabilera eremuan

ERAIKUNTZEN BALIOAK:

Udalerririk osorako ezarri den Eraikuntzaren Oinarritzko Modulua (EOM) 595,00 euro/m² eraikia da.

EOM = 595,00 €/m² eraikia

51/2014 Foru Dekretuak onartutako balorazio arau teknikoan 20. arauan ezarritakoarekin bat etorrituz, modulu hau honako honi dagokio: 112 3.a eraikuntza motaren tipologia, ERABILERA: bizitegia; MOTA: hiri etxebizitza kolektiboak; MODALITATEA: etxadi itxia; KATEGORIA edo KALITATEA: 3. kategoria edo erdi mailakoa.

Eraikuntzen bost (5) kategoria ezarri dira.

Eraikuntza tipologia bakoitzari aplikatzekoak diren eraikuntza moduluak I. eranskinetako taulako koefizienteei jarraituz jakin daitezke, eta ateratako kategoriaren eta tipologia bakoitzari dagokion erabilera, mota eta modalitate kodearen arabera izango dira.

BALORAZIO IRIZPIDEAK

1. ONDASUN HIGIEZINEN GAINEKO ZERGAREN KARGAPEKO HIRI LURZORUAREN BALIOA ZEHAZTEA

1.1. SARRERA

Uztailaren 19ko 42/1989 Foru Arauak, ondasun higiezinaren gaineko zergarenak, honako hau xedatzen du 3. artikuluan 4. puntuan: ezaugarri berezietako ondasun higiezinak erabilera bereziko multzo konplexu bat dira, lurzorua, eraikinak, instalazioak eta urbanizazio eta hobekuntza obrak hartzen dituenak, zeintzuk ondasun higiezin bakartzat jotzen baitira katastro ondorioetarako, bateratuta daudelako eta funtzionamenduari begira behin betiko elkarri lotuta daudelako.

Ezaugarri berezietako ondasun higiezinak joko dira aurreko paragrafoaren arabera talde hauetan sartzen direnak:

- a) Energia elektrikoa eta gasa ekoizti eta petrolioa birfintzekoak, eta zentral nuklearrak.
- b) Presak, ur jauziak eta urtegiak, horien hondo edo ontzia barne; ureztatzeko erabiltzen direnak izan ezik.
- c) Bidesaridun tunelak, autobideak eta errepideak.
- d) Merkataritzarako aireportuak eta portuak.

Diputatuen Kontseiluaren irailaren 13ko 55/2011 Foru Dekretuak, ezaugarri berezietako ondasun higiezinaren katastro baloraziorako arauak onartzen dituenak, honako hau xedatzen du:

– 1. artikuluan 3. puntuan: Arabako Lurralde Historikoaren barruan partzialki finkatutako higiezin baten edo higiezin multzo baten beti-bateko balorazioa egite aldera, Udal Zerga eta Katastro Zerbitzuak aukera izango du, behar bezala arrazoitu ondoren, beste administrazio publiko batek higiezinari aitortutako balioaren erreferentziazko balorazioak, irizpideak edo koefiziente espezifikoak erabiltzeko.

– 3. artikulua. Ezaugarri berezietako higiezinaren lurzoruen balorazioa. Ezaugarri berezietako higiezinak okupatzen duen lurzoruen katastro balioa dagokion balioeztapen txostenean ezarriko da. Bertan jasotako irizpideen arabera, hainbat area edo sektore finkatu ahalko dira.

– 4. artikulua. Ezaugarri berezietako ondasun higiezinaren eraikuntzen balorazioa.

1. Katastro balorazioa egiteko, ezaugarri berezietako higiezinaren eraikuntzak bi motatan banatzen dira: ohiko eraikuntzak eta eraikuntza bereziak.

2. Honako hauek joko dira ohiko eraikuntzat: urtarrilaren 18ko 51/2014 Foru Dekretuan, hiri ondasun higiezinaren katastro balioa zehazteko erabiliko diren balorazioaren arau teknikoak eta lurzoruen eta eraikuntzen balioen esparru taula onartu zituenean, adierazitako eraikuntza tipologiaren batean sar daitezkeen eraikuntzak.

3. Ohiko eraikuntzen balorazioa urtarrilaren 18ko 2/1994 Foru Dekretuan ezarritako arauari jarraituz egingo da. Foru dekretu horren bidez, onartu egin ziren hiri ondasun higiezinaren katastro

balioa zehazteko erabiliko diren balorazioaren arau teknikoak eta lurzorua eta eraikuntzen balioen esparru taula.

4. Honako hauek joko dira eraikuntza berezizat: Diputatuen Kontseiluaren urriaren(1) 14ko 51/2014 Foru Dekretuan, hiri ondasun higiezinaren katastro balioa zehazteko erabiliko diren balorazioaren arau teknikoak eta lurzorua eta eraikuntzen balioen esparru taula onartu zituenean, adierazitako eraikuntza tipologiaren batean sartu ezin diren eraikuntzak.

5. Aurreko 4. idatz zatian definitutako eraikuntzak baloratzeko xedez, aparteko balorazioa egingo da, dagokion balioeztapan txostenak aurreikusitako balorazio metodoari jarraituz.

(1) Urriaren 14ko 51/2014 Foru Dekretuak urtarrilaren 18ko 2/1994 Foru Dekretua indargabetu zuen.

1.2. LURZORUAREN BALIOARI BURUZKO OHARRAK

1.2.1. BALORAZIO ZONA FISKALEN BANAKETA

51/2014 Foru Dekretuaren zazpigarren arauko irizpideekin bat etorritik, agiri honen IV. eranskinean jasotako taulan bildutako balorazio zona fiskaletan hiri lurzorua banaketari ekin zaio, balorazio parametroak adieraziz. Aipatutako balioen zona fiskal horiek atxikitako kasuan kasuko planoetan jaso dira, grafikoki.

1.2.2. LURZORUAREN BALORAZIOA

1.2.2.1. BALORAZIO IRIZPIDE NAGUSIAK

Txostenean, lurzatiaren unitate balioaren bidez zehaztu dira lurzorua balioak. Unitate balioa lurzorua azalera unitateari dagokiona da (m^2). Edozein lurzatiaren balioa honela aterako da: azalera bider lurzorua metro koadroaren prezioa.

IV. eranskinean daude jasota zonak eta balioak.

1.2.2.2. GARATZEKE DAGOEN LURZORUA

Berehala urbanizatu eta eraikitze beharrezkoak diren hirigintza ezaugarriak ez dituzten lurzatietan, lurzorua katastro balioari ondoko koefizienterik bat aplikatuz aterako da haien katastro balioa:

a) Lurzoru urbanizagarrian:

– 0,20, behin betiko onartutako plan partzialik ez badu.

– 0,30, behin betiko onartutako plan partziala bai baina lurzati bakoitzari onurak eta kargak egotzen dizkion kudeaketa tresnarik ez badu.

– 0,60, berriro lurzatiatze proiektua bai baina urbanizazio proiekturik ez badu.

b) Hiri lurzoruan:

– 0,80, urbanizazio proiektua badu.

– 0,75, behin betiko onartutako barne erreformako plan berezirik ez badu, plan hori derri-gorrean idatzi beharrekoa denean.

– 0,75, behin betiko onartutako urbanizazio proiekturik ez badu, eraikitze eskubidea erabili ahal izateko beharrekoa denean.

1.2.2.3. LURZORUAREN BALIOAREN ZUZENKETA KOEFIZIENTEAK (Z_{sn}). APLIKAZIO EREMUA

Unitate balioaren bidez baloratutako lurzoru. Lurzorua merkatua berezitasunen ondorioz (higiezin merkatuko multzoaren barruan zehatza da), hala dagokionean, atal honetan adierazitako zuzenketa koefizienteak aplikatuko dira. Hala ere, A, B, C, D eta E koefizienteak ez dira aplikagarriak izango garatzeke dauden lurzoruak, 1.2.2.8 atalean jasota daudenak.

A) koefizientea, bide publikora ematen duten fatxada batzuk dituzten lurzatiak

Eraiki gabeko lurzatiak baloratzeko, fatxada bat baino gehiagokoak direnean eta ertz bat edo gehiago dutenean, honako koefiziente hauek izango dira kontuan:

A-1. Bi fatxada: 1,10.

A-2. Hiru fatxada edo gehiago: 1,15.

B) koefizientea, fatxadaren luzera

Lurzati fatxadaren luzera planeamenduak ezarritako gutxienekoa baino txikiagoa bada, zuzenketa koefizientea aplikatuko da, eta hori L/GLren arteko emaitza izango da, L fatxadaren luzera delarik eta GL planeamenduak edo, hala badagokio, balioeztapen txosten honek IV. eranskinean zehaztutako gutxieneko luzera.

Ez da, inolaz ere, 0,60tik beherako koefizienterik aplikatuko.

Aplikazio eremua: Ertzak dituzten lurzati kasuan ez da aplikatuko. Soilik etxadi itxian eraikitzeke edo hiri izaerako familia bakarrekoen kasuan, etxadi itxian edo lerroak eraikitzeke, lurzati eraikietan zein eraiki gabekoetan. Eraiki gabeko lurzati kasuan, unitate balioa bider lurzatiaren azalera eginez lortutako emaitzari zuzentzailea aplikatuko zaio.

C) koefizientea, forma irregularra

Lurzati baten ezaugarri geometrikoak direla eta ezin denean, edo zaila denean, planeamenduak ezarritako errendimendua lortu, 0,85eko zuzenketa koefizientea aplikatuko da.

Aplikazio eremua: Soilik eraiki gabeko lurzatietan izango da aplikagarria, etxadi itxiko antolakuntza motan zein eraikuntza irekikoan. Aurreikusitako errendimendua lortzeko zailtasuna modu globalean hartuko da, hau da, eraikigarritasun baldintzak agortzeko ezintasunak lurzatiarako ezarritako azken errendimenduari eragin behar dio.

D) koefizientea, gehiegizko sakonera

Etxadi itxian eraikitzeke antolatutako lurzatiak: ohikoa baino sakonera handiagodun lursailetan, aprobetxamendua horren arabera baldin bada, honako koefiziente hauek aplikatuko dira:

$S = 0s$	1,00
$0s < S \leq 1,5 0s$	0,95
$1,5 0s < S \leq 2 0s$	0,90
$2 0s < S \leq 4 0s$	0,85
$4 0s < S$	0,80

Azalpena:

S: lursailaren sakonera

Os: udalerriko edo inguruko ohiko sakonera

E) koefizientea, gutxienekoaz bestelako azalera

Eraikuntza irekietarako antolatutako lurzatietan, planeamenduan ezarritako gutxieneko azalera (GA) bestelako azalera (A) badute, honako koefiziente hauek aplikatu ahalko dira:

$A/GA < 2$	1
$A/GA > 2$	0,7 (2 GAtik gorako azalerei aplikatzekoa)

F) koefizientea, aldi batez ezin eraikitzea

Eraiki gabeko lurzatietan edo azpilurzatietan, behar bezala justifikatutako hirigintzako edo legeko arazoak medio ezin bada azalera osoan edo zati batean eraiki, arazo horiek dirauten artean, 0,60ko koefizientea aplikatuko zaio eragindako lurzati parteari, salbu eta inguruabar horiek lehenagotik aintzat hartu badira eremuaren balioa zehazterakoan.

Aplikazio eremua: Eraiki gabeko lurzatieta, betiere udalak urtebete baino gehiagoko epeetan obra lizentziak aldi baterako bertan behera uztea agintzen badu.

Garatzeke dauden lurzoruetan ez da aplikatuko, salbu eta bat-batean gertatutako eta behar bezala justifikatutako lege edo hirigintza inguruabarrek hirigintza garapena osatzea eragozten badute eta ez badira aintzat hartu balioeztapen txosten honetan jasotako balioak zehazterakoan.

1.2.2.4 MERKATUAREN KOEFIZIENTEA K

Obra berri batean, higiezinaren promozio baten emaitza denean, merkatuaren koefizienteak higiezinaren promozioaren jardunetik beretik eratorritako gastu eta onuren multzoa hartzen du barnean; ezin zaizkio eraikuntza prozesuari esleitu.

Bigarren eta ondorengo salmenten kasuan, edo obra berri bat ez denean higiezinaren promozio baten emaitza, orduan merkatuaren koefizientea izango da, hain zuzen ere, lotura ezarri duena merkatuaren balioaren eta lurzoruaren balioaren eta antzinatasunaren, zaintzaren edo higiezinaren erasan dezaketen beste egoera batzuen arabera balioa galdu duen eraikuntzaren baturaren artean.

Txosten honetan aurreikusitako k balioak honako hauek dira:

- Lurzorua LUB bidez baloratzen den zonen kasuan: $k = 1,00$

1.2.2.5 MERKATU ERREFERENTZIA ME

Aurreko faktoreak eta koefizienteak aplikatzearen ondoriozko balioa gutxitzen duen koefizientea, katastro balioa merkatu balioaren azpitik bideratuz.

Txosten honetan aintzat hartutako ME hauxe da: $ME = 0,71$

1.3. UNITATE BALIOAREN BIDEZ LURZORUAREN KATASTRO BALIOAK LORTZEKO FORMULA

ERAIKUNTZADUN EDO ERAIKUNTZARIK GABEKO LURZATIAN

$$LKB_n = A_n \times LUB_n \times Z_{sn} \times K \times ME$$

Azalpena:

LKB_n: n lurzatiaren lurzoruaren katastro balioa (€).

A_n: n lurzatiaren azalera (m²s).

LUB_n: lurzatiari dagokion lurzatiaren unitate balioa.

Z_{sn}: n lurzatiari dagokion lurzoruaren balioaren zuzenketa koefizienteak.

K: n unitate fiskalari dagokion merkatuko koefizientea.

ME: Hartutako merkatu erreferentzia.

1.4. ERAIKUNTZEN BALIOARI BURUZKO OHARRAK

1.4.1. DEFINIZIOAK

Azalera eraikia da eraikinaren inguruko hormen kanpo lerroak eta, egonez gero, meheline-tako ardatzek mugatzen duten azalera, argi patioen azalera kenduta.

Balkoi, terraza, ataripe eta antzeko osagaietan, estalita daudenean, euren azaleraren % 50 hartuko da kontuan, lau aldeetatik hirutan estalita daudenean izan ezik, orduan azaleraren % 100 hartuko baita kontuan.

1,50 m baino garaiera txikiagoa duten espazioak ez dira eraikitako azaleratzat hartuko.

Jabetza horizontalaren banaketaren elementu bakoitzaren azalera eraikian, hala badagokio, eraikuntzari lotutako elementu komunaren zati proportzionala jasoko da.

Aldapa eta eskaileraren kasuan, solairu bakoitzean horizontalean proiektatutako azalera hartuko da kontuan.

Gas eta likidoen gordailuen kasuan, eraikuntza izaera kontuan hartuta, balorazio unitatea metro kubikoetan kalkulatutako bolumen eraikia izango da, eta solidoetarako gordailu eta zuloen kasuan, berriz, tona metrikoa erabiliko da balorazio unitate modura.

1.4.2. ERAIKUNTZEN BALORAZIOA

1.4.2.1. OHAR OROKORRAK

Eraikuntzen kostua zehazteko, indarreko araudiak alderdi hauetan oinarritzen den prozedura ezartzen du:

a) Eraikuntzako metro koadroaren egungo kostua, honako ezaugarriak dituen eraikin motarentzat: ERABILERA: bizitegia; MOTA: hiri etxebizitza kolektiboak; MODALITATEA: etxadi itxia; KALITATEA: erdi mailakoa (3. kategoria). Eraikuntzen balioen koefizienteen taularen 112.3 tipologia (I. eranskina).

b) Baliokidetasunak, ERABILERAren, MOTAre, MODALITATEaren edo KOKALEKUaren eta KALITATEaren arabera eraikuntza mota ezberdinen eta aurreko lerroaldean ereduzat hartutako eraikinaren artekoak (I. eranskinean jasotako koefiziente taularen arabera).

c) Eraikuntzen balioen zuzenketa koefizienteak aplikatzea, hurrengo ataletan zehaztutako inguruabarrak jasoko dituztenak.

Aurreko taulak 51/2014 Foru Dekretuak finkatu zitueneguz, soilik eraikuntza motaren (edo modularen) gaur egungo m²-ren kostua finkatu behar da, eta eraikuntza jakin bati aplikatu beharreko kalitatea definitzeko kasu zehatz bakoitzean erabili beharreko elementu objektiboak (II. eranskineko materialen azalak) adierazi behar dira.

2.2. ERAIKUNTZA MODULUAREN EDO METRO KOADROAREN EGUNGO KOSTUA (EOM)

Gasteiz udalerrirako eta 2015. urterako, eraikuntzako metro koadroaren egungo kostua 595,00 eurokoa da m² eraiki bakoitzeko, honako ezaugarri hauek dituen eraikin motarentzat: ERABILERA: bizitegia; MOTA: hiri etxebizitza kolektiboak; MODALITATEA: etxadi itxia; KALITATEA: erdi mailakoa (3. kategoria); eraikuntzen balioen koefizienteen taularen 112.3 tipologia (I. eranskina).

$$EOM = 595,00 \text{ €/m}^2 \text{ eraikia}$$

1.4.2.3. ERAIKUNTZEN KALITATEA

I. eranskinean ageri den taulan –erabileraren, motaren, modalitatearen edo kokalekuaren arabera aplikatzeko koefizienteen taula– eraikuntzako bost (5) kategoria edo kalitate ezartzen dira, udalerrri osoan aplikatzekoak.

Eraikin baten kategoria haren eraikuntza ezaugarrien arabera ateratzen da, automatikoki: eraikuntza mota bakoitzarentzat egindako katastro fitxa bakoitzak kalitateei buruz duen orrian daude jasota ezaugarri horiek, eta orri hori eraikin mota bakoitzaren erabilera nagusiaren arabera betetzen da. Gero, lortutako koefizienteak elkarren artean biderkatzen dira. Horrela lortutako emaitza kategoria bakoitzarentzat ezarritako tarteekin alderatzen da.

Txosten honetako II. eranskinean kalitateen orriak daude jasota, bai eta koefizienteen tarteak ere, eraikuntzen kategoria haien erabilera nagusiaren arabera ateratzeko: etxebizitza kolektiboak – familia bakarreko etxebizitza – landa eremuko etxebizitza – industria bulegoa – industria pabiloia.

Unitate fiskalek kokatutako kasuan kasuko eraikuntza eta eraikinen kalitatea hartuko dute.

Eraikin bereziak

Zenbait eraikin eta eraikuntza lanek, dituzten eraikuntzako ezaugarriak direla medio, kalitate ezaugarrien orri eta instalazio bereziak beharko lituzkete. Hortaz, asko ere ez direnez, eta gehienetan eraikin eta eraikuntza bereziak direnez, zuzen-zuzen eta alderaketaz finkatuko da

kategoria. Udal Zerga eta Katastro Zerbitzuko teknikariek egotziko diete kategoria. Eraikuntza eta eraikin horiek I. eranskinetako taulan definitu dira erabilera kode hauen arabera:

311, 312, 331, 421, 422, 431, 432 eta taldeetakoak 5, 6, 7, 8, 9 eta 10

1.4.2.4. ERAIKUNTZEN BALORAZIOAK

Eraikuntzak birjartze metodoaren bidez baloratzeko, egun duten kostua kalkulatu da, EOM moduluaren, erabileraren eta kategoriaren arabera, kostu horri antzinasunak, mantentze egoerak, izaera historiko-artistikoak eta balioeztapen txostenean jasotako gainerako ezaugarriek eragiten dioten balio galera kontuan hartu eta horren arabera balioa doitu.

Balorazioa multzoka egiteko, eraikuntzak txosten honetako I. eranskinean jasotzen den taularen arabera sailkatuko dira.

Eraikuntza baten ezaugarri bereziak direla-eta ezin bada eraikina aipatutako taulan ezartzen diren moten arabera identifikatu, ez eta definitzen diren tipologietako baten antzekotzat jo ere, balorazio berezia egingo da.

1.4.2.5. ERAIKUNTZEN BALIOAREN ZUZENKETA KOEFIZIENTEAK (Z_{cn})

Aplikatu beharreko zuzenketa koefizienteak hauek dira:

G) koefizientea, eraikuntzaren antzinasuna

Egotzitako balio tipoa zuzendu egingo da eraikuntzaren antzinasuna haztatzen duen koefizientearen arabera, erabilera nagusia eta eraikuntzaren kalitatea edo kategoria kontuan hartuz.

III. eranskinetako taulan daude jasota koefiziente horiek.

Antzinasun aldia eraikuntza, berreraikuntza edo birgaitze integralaren datatik igarotako urte osoetan adieraziko da, berreraikuntza partzialen arabera (erabatekoa, ertaina, txikia) haztatuz atal honen amaieran adierazitako formularen arabera. Txosteneko balioen eguneraketaren ondorioetarako, txostena onartu eta hurrengo urteko urtarilaren 1ean zenbatuko da antzinasuna.

Antzinasun koefizientea aldakorra izango da, erreforma edo birgaitzeen esku-hartze mailaren arabera; horretarako, beharrezkoa da balizko erreformak definitzeko eta birgaitze gisa uler daitekeena zehazteko marko bakarra ezartzea. Horretarako honako kasu hauek bereiziko ditugu:

* Birgaitze integrala

Birgaitze integrala izango da erreforma lanak planeamenduak edo indarreko udal araudiak birgaitzetan jotzen duenaren arabera; horrelakorik ez dagoenean, lanen kostua lan horiek beroriek oin berriko eraikuntzan egitekotan izango luketen kostuaren ehuneko 75 baino handiagoa denean eta, gainera, eraikuntza lanaren ezaugarriak direla eta, haren erabilera, funtzioa eta egoera lehenengo egunekoak bezalakoak direla uste izateko bide ematen duenean. Horrelakoetan, eraikuntzaren antzinasuna birgaitzeaz geroztik neurtuko da.

* Erabateko erreforma

Erabateko erreforma izango da erreforma lanek eraikinaren funtsezko osagaiei eragiten dietenean, horien kostua oin berriko eraikinean izango luketenaren % 50 baino handiagoa eta % 75ekoa edo hori baino txikiagoa izanik.

* Erreforma ertaina

Erreforma lanek fatxadari edo eraikin ezaugarrien aldaketa eragin dezakeen osagairen bati eragiten diotenean, horien kostua oin berriko eraikinean izango luketenaren % 25 baino handiagoa eta % 50 edo hori baino txikiagoa izanik.

* Erreforma txikia

Erreformaren lanek funtsezko ez diren eraikuntza osagaiei eragiten dietenean, horien kostua oin berriko eraikinean izango luketenaren % 25 edo hori baino txikiagoa izanik.

Koefiziente hauek udalerrri osoan ezarriko dira, eta honako zuzenketa formula hau ezarriko da:

$$A = \text{Erk.e.} + (\text{Erf.e.} - \text{Erf.e.}) i$$

Azalpena:

A = Antzintasuna, koefizientea aplikatzearen ondorioetarako

Erk.e. = Eraikitze eguna

Erf.e. = Erreforma eguna

i = Erreforma mota kontuan hartzen duen koefizientea; balioak:

i = 0,25 erreforma txikiarekin

i = 0,50 erreforma ertainarekin

i = 0,75 erabateko erreformarekin

i = 1,00 birgaitze integrala egin bada

H) koefizientea, mantentze egoera

Arrunta: 1,00 Edozein antzintasun dutela ere, konponketa garrantzitsurik behar ez duten eraikuntzak.

Ertaina: 0,85 Akats iraunkorrak dituzten eraikuntzak, bizigarritasun eta egonkortasun baldintza normalei eragin gabe.

Txarra: 0,50 Konponketa handi samarrak behar dituzten eraikuntzak, bizigarritasun eta egonkortasun baldintza normalei eragiten dietenak.

Aurri egoerakoak: 0,00 Legez aurri deklaratu diren edo nabarmenki bertan bizitzeko egokiak ez diren eraikuntzak.

Zuzenketa koefiziente hauek udalerrri osoan aplikatuko dira, era guztietako eraikuntzetan, balorazio berezia izan dutenetan izan ezik.

1.4.2.6. MERKATUAREN KOEFIZIENTEA K

Koefiziente hau, balioeztapen txosten honen 1.2.2.11 atalean deskribatutakoa, eraikuntzari ere aplikatuko zaio.

1.4.2.7. MERKATU ERREFERENTZIA

Faktore hau, balioeztapen txosten honen 1.2.2.12 atalean deskribatutakoa, eraikuntzari ere aplikatuko zaio.

1.5. ERAIKUNTZAREN KATASTRO BALIOAK LORTZEKO FORMULA

Eraikuntzaren katastro balioa azalera eraikiaren arabera lortuko da, elementu komunei dagokien zati proportzionalarekin, eraikuntza moduluari, erabileraren eta kategoriaren arabera hartutako koefizienteari eta zuzenketa koefizienteei dagokienez, merkatuko koefizienteaz (k) eta merkatuko erreferentziako faktoreaz (ME) gain, lurzorua balioa lortzeari buruzko ataletan definitutakoak.

$$EKB_n = AEn \times EOM \times KK_n \times Zcn \times K \times ME$$

Azalpena:

EKB_n: n unitatearen eraikuntzaren katastro balioa (€)

AEn: n laginaren azalera eraikia, kasuan kasuko elementu komunen zati proportzionala barne (m²)

EOM: Eraikuntzaren oinarrizko modulua (Gasteizerako 2015ean hartutako balioa: EOM = 595,00 €/m²)

KKn: Kalitatearen koefizientea, n laginari dagozkion erabileren taularen tipologia eta kategoriaren arabera.

n lagin bakoitzari dagokion eraikuntzaren balioaren zuzenketa koefizienteak.

K: n laginari dagokion merkatuko koefizientea.

